

HAIZE HEGOA

Karlos ZABALA OIARZABAL.

zekoa.

- Non duzu mina?

Burko gaineko buruak begiak itxi zituen, eta koltxa azpian zerbait mugitzen ari zela konturatu zen sendagilea. Baina ez zion ezer esan. Besteari begiratu zion, baina itxita zeuden haren begiak ere. Zer da hau, ordea, pentsatu zuen bere artean, eta, komodaren gainean laga ondoren, mediku-maletako dotorea ireki eta estetoskopioa atera zuen, zerbait egite aldera.

- Bihotzean min du.

Erantzun zion besaulkiko ahots eroriak. Segituan begiratu bazion ere, ezin medikuak mugimendurik ikusi aurpegi zurbil hartan. Neba-arrebak begi itxita segitzen zuten. Orduan sumatu zuen estratinekoz urduritasun apur bat bizkarrezurrean behera.

- Nolako mina, iraunkorra ala puntukaria?

Zerrategiaren hots zorrotza entzun zuen leiho itxiak erdi itzaldurik. Oheko buruak begiak ireki zituen eta gaisoaren begiratu finkoak jo zuen medikuaren betseinen kontra. Arreta-espresioa jarri zuen ondoren ohekoak, ez zuela galdera ulertu adierazteko edo. Bestea begi itxita besaulkian. Modu ulergarriagoan nola galdetu pentsatzeari ekin zion medikuak.

- Mina beti mina da.

Oraingo honetan, esaldi bukatu aurretik begiratu zion medikuak besaulkiko momiari, baina ez zuen mugimendurik ikusi haren ezpain txikietan. Une batez hiruak egon ziren geldi-geldirik, isil-isilik, eta enara krudelen txilio urduiak barruratu ziren kaletik gelara. Zerbait egiteko erabakia harturik, ohekoari hurbildu zitzaion, estetoskopia eskuaren dardarizo xumean zeramala.

- Hauxe kiratsa hemen dagoena!

Esan zuen medikuak, eta kortina eta eskutokia irekirik, zabal-zabalik utzi zituen leihoaren bi aldeak inori baimena eskatu gabe. Kanpoko aire freskoa sartu zen kuartoan eta goizeko eguzkiaren errainu gozoak barreiatu ziren ohe, mesanotxe, armairu, komoda eta besaulkien artean. Harro puntuko irribarre bat ahoratu zitzaion petrikilo traxedunari.

- Etxea bentilatu behar da, gizona!

Esan zuen gaisoaren nebari begira, eta esan bezain laster erreparatu zion beste usain bati, haize hegoak zekarren eta poliki-poliki gelako egurats freskату berrian nagusitzen ari zen zabortegi usain sarkorrari. Hurbileko zerrategi baten makinaren zarata ere iritsi zen medikuaren belarrira. Eta gaisoaren eta bestearen harro puntuko irribarreek min sakona eman zioten urguiloan.

- Minez zaude, beraz.

Esan zion burkoan hondoratutako buruari, egoerarekin bat ez zertorren modu alai batez. Buruak baietz adierazi zion hiru aldiz ezpainak banandu gabe. Nebak leihoa itxi zuen eta, besaulki batean eserita, espresio gabeko begitartea jarri zuen, momia baten ant-

- Aztertu egingo zaitut.

Gaisoa ez zen mugitu eta, medikuak, gainera koltza kenduz, agertarazi zuen haren gorputza. Biluzik zegoen, eta ez ohe barruan, manta eta maindireen gainean baizik. Ederra zen. Eder-ederra. Hogei bat urte izango zituen. Besaulkikoa, aldiz, mutiko bat zen, hamabi urtekoa edo.

- Zenbat diru daramazu aldean?

Gaisoaren nebak egin zion galdera. Dirua? Zer da hau, gero? Medikua ez zuen konprenitzen. Keinu mekaniko batez eskua poltsikora eraman zuen ea dirurik zuenetz begiratzera. Ez zuen. Mutiko begi itxiaren aldera bi pausu eman zituen eta poltsiko hutsa erakutsi zion.

- Desira ezagun da zure begietan.

Medikuak ezin sinesturik zegoen. Orduan harritu zen gaisoaren ama edo aita etorri ez zirelako. Eta den-dena oso arraroa zela bururatu zitzaion. Neska gazte eder bat ohearen gainean, gaisorik edo, eta begiak ireki nahi ez zituen mutiko zurbil batek desira nabari zitzaiola ez zion esan ba!

- Non duzue ama?

Ama hilik zutelako pentsamendua zeharkatu zion burua, tximistaren pare. Ohe bazterrean eseri zen eta estetoskopioz hasi zen neska gaztearen bularraldea auskultatzen. Arinago hasi zen arnasa hartzen gaisoa eta estetoskopioa lurrean utzirik, izerdi hotzez bustitako eskuez laztandu zion gorputz leuna, kontsolamendua eman nahian.

- Egiotzu maitasuna.

Ezetz pentsatu zuen medikuak, oldartzen ari zitzaion grina biziaren kontra. Ezin zuela horrelakorik egin, tentazio sutsuaren kontra. Neskaren gorputza geldirik zegoen, begiak sabaiko argi itzalian iltzaturik. Handik joateko irrikia jabetu zen medikuaren borondateaz, baina ezin pausurik eman. Doktore serio batek ezin zion maitasuna egin paziente bati.

- Zu ez zara medikua.

Hitzegin zion momia txikiak. Gelako giro itogarriari ezin eutsian zegoen sendagilea. Ez bide zen medikua. Eta mutikoa begiak itxita. Ohe gaineko gorputz polit geldiari so egin zion, profesionaltasunez oraingo honetan. Ez zuen gaisoaren trazarik. Zernahi errezetatu eta alde egin, horixe egin behar zuen, egoeraren zamak zapalagotu baino lehen.

- Ez zara medikua.

Amorrazten hasi zen. Mutikoarengana jo zuen itsuturik, baina haren begi itxiek geldierazi zuten. Ingurura begiratu zuen erantzun baten bila. Ukabila estutu zuen hazkazalekin min emateraino. Enaren geziak gurutzatzen ziren leihoan, eta udal zabortegiaren atea ikusi zuen kamio bazterrean.

- Zergatik diozu ez naizela medikua?

Momia zurbilaren ezpainetan mugimendu txiki-txiki bat sumatu zuen. Izerditan blai zegoen eta traxearen jaka maletatxo dotorearen gainean utzi zuen. Beroa izugarria zen eta kanpoko eguzkiak bete-betean erretzen zion kopeta. Pertsiana jaitsi nahi izan zuen baina hondatuta zegoen.

- Gure arreba hiltzen utzi duzulako.

Lehiaz hartu zuen neskaren eskumuturra eta pultsua bilatzen ahalegindu zen alferrik. Ez zegoen arnabarik haren biriketaren eta sabaiko argian iltzaturiko begiak itxi zizkion. Eder-ederra zen. Jaka eta maletatxoa harturik, gelatik, pisotik, etxetik kanpora atera zen, estetoskopioa gelako lurrean ahazten zitzaiola. Kotxerainoko bidean zerrategiaren hots zorrotza entzun zuen, zabortegia usaindu zuen, enarak ikusi zituen haien hegalaldi eroetan.

- Agur mediku jauna.

Esan zion hildakoaren neba txikiak leihotik oihuka. Ez zela berriz auzo hartara itzuliko pentsatu zuen lehenik. Gero, ez zela berriz etxez etxe joango gaisoen deialdiei erantzunez. Hiru egun aurrerago, medikuntzari utzi zion. Hiru hilabete aurrerago emaztea joan zitzaion seme-alabak eskuetik oraturik. Ezin belarririk ezabatu enara haien txilio krudelak, mutiko haren ahots eroria, neska gazte haren arnasa falta. Egun batez, etxea txukuntzeko kontratu zuen andreak zera esan zion, haren gelara sartu zenean:

- Hauxe kiratsa hemen dagoena!

Eta oheko burkoan hondoratutako buruari erreparatu gabe, leiho itxia irekitzera abiatu zen inori baimena eskatu gabe.

